

IRAUPEN LUZEKO ZAINKETAK PERTSONALIZATZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN AINTZATESPENAK



ZAINKETAK PERTSONALIZATUZ:
BEGIRADA-ALDAKETA

GALLARTA LAGUNTZA ZENTROA. GUFÉ

A ARDATZA: ARRETA ETA BIZITZA PERTSONALIZATUKO PLANA

Gure jardunbide egokiak zentroko erabiltzaile batekin arreta pertsonalizatuko proiektu baten bidez izan dugun esperientzia eta ikaskuntza deskribatzen ditu. Esperientzia eta lan horren harira, indarguneak eta hobetzeko eremuak antzeman ditugu, eta, hala, aldaketa gehiago egin ahal izan ditugu. Gainerako erabiltzaileei zuzendutako iraupen luzeko zainketen pertsonalizazio-sistamarantz egin dugu aurrera, eta, aldi berean, talde profesional osoa inplikatu dugu.

Aurkezten dugun jardunbide egokiari esker, zaintzak eta laguntzak antolatuko dituzten arreta- eta bizitza-plan pertsonalizatueta aurrerapenak, aldaketak, garapenak eta zehaztapenak egin ahal izango ditugu, autonomia eta autodeterminazio pertsonala bultzatuz eta bizitza-proiektu egoki bati eutsiz. Pertsonaren parte-hartzearekin egingo da, zuzenean edo modu ordezkatuan.

JARDUNBIDE EGOKIAREN GARAPENA

Zerbitzuan oinarritutako arreta-eredu tradizionaletik zainketen pertsonalizaziorako trantsizioa zela- eta, zentroan hainbat aldaketa sakon egiten ari ginela, lehentasunak eta beharrak argi eta garbi jakinarazten zituen erabiltzaile baten eskaerei erantzuteko beharra sortu zen.

Jardunbideari dagokionez zailtasunak agertu ziren; izan ere, aurreko antolaketa-dinamikek talka egiten zuten arretaren kultura berriarekin, zeinaren oinarria enpatia, entzute aktiboa eta arreta eta zaintza jasotzeko moduari buruzko erabakietan pertsonen parte hartzen uztea baitira, hau da, jasotzen duten arretaren erdigunean jartzea pertsona horiek.

Testuinguru horretan, erabiltzailea ez zen ulertua sentitzen, eta, horregatik, langileei aurre egiten zien eta bere buruarekiko eta besteekiko sentimendu negatiboak eta suntsitzaileak zituen (“hemen ezin da bizi”, “kaka hutsa da hau”, “jateari utziko diot”, “hobe hilko banintz”, “langileak ez dira ezertarako gai”, “ez dira ezertaz ohartzen”...).

Profesionalok ez ginen seguru sentitzen, zalantzan jarri behar izan genituen gure protokoloak, gauzak egiteko moduak eta urteetan zehar eskuratutako errutinak. Egoera horrek, gure artean gatazka sortzeaz gain, arriskuak hartzera eta konfiantzazko harremanak garatzera behartu gintuen.

Zailtasun horietan guztietan oinarrituta, haren independentzia eta autodeterminazioa babestera bideratutako erantzuna ematen saiatu ginen.

Harengana nola iritsi gintezkeen hausnartu genuen, entzuna senti zedin, eta haren beharrak garrantzitsuak zirela eta horiei erantzun nahi geniola jakinarazteko. Azken batean, bizitza-proiektua garatzen laguntzeko.

Une horretan, bere bizitza-historia jaso ez genuenez, hura hobeto ezagutzeko eta haren beharretara hurbiltzeko zubi gisa balioko zigun tresna bat bilatzea erabaki genuen.



ZAINKETAK PERTSONALIZATUZ: BEGIRADA-ALDAKETA

GALLARTA LAGUNTZA ZENTROA. GUFÉ

Horretarako, “esku-hartzeen taula” bat sortu genuen, eta, horri esker, zertan asmatu dugun eta zer akats izan ditugun jakin ahal izan dugu, horiei buruz hausnartu dugu, eta, aldi berean, pertsona horren bilakaera egiazta ahal izan dugu.

“Esku-hartzeen taula” hori informazioa biltzeko eta jarduketak aldatzeko tresna nagusia izan da, bai eta arreta pertsonarentzat garrantzitsua den alderdietan jarri, eta, hala, beharrezkoak diren laguntzak emateko ere.

Laguntza emateko modua egituratzeko aukera eman digu, eta, horrela bada, pertsonak bere bizitzaren gaineko kontrolari eutsi ahal izatea sustatzen dugu, bere berezitasuna errespetatuz eta autodeterminazioa babestuz.

“Esku-hartzeen taulak” honako item hauek jasotzen ditu:

Laguntza-beharrak	Erabakiak	Erabakia hartzeko zer baloratzen dugun	Akatsak	Sortzen diren arazoak	Ondorioak era-biltzailearengan	Zuzenketa
-------------------	-----------	--	---------	-----------------------	--------------------------------	-----------

Gaur egun, “esku-hartzeen taulaz” gain, erabiltzen dugun beste funtsezko tresna bat “bizitza-historia” da, erreferentziatzeko profesionalarekin batera.

Tresna osagarri hauek ere erabiltzen ditugu:

- Gustuak eta lehentasunak.
- Bizi-kalitatea ebaluatzeko Inico-Feaps eskala.
- Bizi-kalitatearen 8 dimentsioetan oinarritutako bizitza- eta laguntza-plana.
- Barthel eskala.
- Matia Fundazioa: “Arriskuak dakartzaten lehentasunen aurrean erabaki partekatutak hartzeko gida”.
- Balorazio integrala.

MUGARRI ESANGURATSUAK

- Eredu tradizionaletik zainketen pertsonalizaziorako trantsizioan, hainbat aldaketa gertatu dira profesionalen plantillan, eta, ondorioz, atzera egin dugu. Taldeak eredu berrirantz aurrera nola egin hausnartzen ari da.
- Autodeterminazioak, pertseberantziak, borondate-indarrak eta erabiltzaile horrek bere ohiturei uko EZ egiteak etengabeko tentsio- eta gatazka-giroa sortzen dute zentroko profesionalengan. Horrek agerian uzten du zer gertatzen ari den ulertzeko beharra eta aldaketa bultzatzeko beharra.
- Bere bizitza-historia kontatu ahala, enpatizatzen goaz, berarentzat esanguratsua zer den jakiten eta ulertzen, eta taldea begirada aldatzen hasi da. Lehen desgaitasuna ikusten genuen tokian, orain gaitasunak ikusten ditugu.
- Independentzia-maila handiagoa izan dezan, eta haren parte-hartzearekin, gelako altzariak lekuz aldatu ditugu, eta, horrela, gela pertsonalizatu eta egokitu dugu.
- Jatorduen ordutegiak eta lekua malgutu ditugu, ohiturei uko ez egiteko eskariari erantzuteko.



- Jaikitze eta oheratzeko ordua pertsonalizatu eta adostu dugu, haien ohitura eta lehentasunekin bat etor dadin.
- Pertsonaren autonomia hobetzeari esker, haien egoera emozionala hobetu da, eta eragin positiboa izan du familia-harremanean.
- Erabiltzaileak ere begiradaz aldatu du; entzuna sentitzen da, haren beharrak ulertzen saiatzen gara eta hautematen du eta gure ahalegina positiboki baloratzen du.
- “Esku-hartzeen taulak” emandako informazioa aztertuta, eredia moldatu eta zentroaren eguneroko funtzionamenduan aplikatu ahal dugu.
- Jardunbide horren bidez eskuratutako ezagutza zabaltzeko, taldeak berak emandako prestakuntza-tailerrak garatu ditugu. Hasiera batean, zentroko 22 profesionalentzat dira, bai laguntza-arlokoentzat bai zerbitzu-arlokoentzat, eta gainerako profesionalengana ere hedatzeko asmoa dugu.
- Prestakuntza-tailer horiek GUFÉko beste zentro batzuetan ere emango dira.

ADIBIDEA

Laguntza-beharrak	Erabakiak	Erabakia hartzeko zer baloratzen dugun	Akatsak	Sortzen diren arazoak	Ondorioak erabiltzaile-arengan	Zuzenketa
Kokapena logelan.	Logela komun partekatua-rekin, 1. solairuan.	Zaurgarritasunaren historia kliniko, langileen hurbiltasuna baloratzen dugu.	Ez dugu galdetu; paternalistotik baloratzen dugu. Desgaitasuna ikusten dugu, ez gaitasuna.	Ez dugu haren bizitza-historia ezagutzen, eta ez dugu horri buruz galdetu. Logelaren antolaera eta tamaina: ez du berak nahi duen autonomia ematen. WC partekatua ez da bateragarria bere ohiturekin.	Langileen kontroletik hain hurbil dagoenez, zarata handia eta atsedean hartzea eragozten dioten argiak daude. Kaos emozionala. Jateari utzi dio. Etxera joan nahi du. Hil egin nahi du. Leku hau izugarria da niretzat.	Haren ezinegonaren ondorioei erantzuten diegu. Altzarien kokapena aldatu dugu (autonomia funtzionala sustatzea). Gauetan, argiak eta zaratak maneiatzea. Gauzak nola eduki nahi dituen galdetzen diogu.



ZAINKETAK PERTSONALIZATUZ: BEGIRADA-ALDAKETA

GALLARTA LAGUNTZA ZENTROA. GUFÉ

EMAITZAK ETA ERAGINA

“Esku-hartzeen taulan” jasotako informazioak zainketak pertsonalizatzeko modua egituratzeko aukera eman digu, eta honako jarduketa hauek ezartzen lagundu digu:

- Arreta- eta bizitza-plan pertsonalizatuen % 100 bizi-kalitatearen dimentsioak kontuan hartuta egiten dira, erabiltzailearen parte-hartzearekin.
- Erabiltzaileen % 100en bizitza-historia, gustu eta lehentasunak jaso ditugu.
- Erabiltzaile guztiek erreferentziazko profesional bat dute, % 50ean haiek aukeratua, eta konfiantza eta ezarritako harremanean oinarrituta aldaketak izan dira.
- Erabiltzaileen % 69ren bizi-kalitatea baloratu da, INICO-FEAPS eskalan.
- Ekimen berritzaileak garatzen ari gara erabiltzaileen interesei erantzuten dieten jarduerak antolatuz, adibidez:
 - Irratia.
 - Zineforuma.
- Erabiltzaileek proposatutako leku interesgarrietara irteerak eta txangoak egitea sustatu dugu.
- Eguneroko alderdiak aukeratu ahal izatea landu dugu, hala nola gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko ordutegiak malgutu ditugu, bai eta gelan eta lorategian jateko aukera eman ere.
- Espazio bat sortu dugu, non pertsonak libreki har dezaketen edari bero edo hotz bat, fruta ale bat edo jogurta egunean eta gauean zehar, nahi dutenean.